

**ENPRESAN BURUTUTAKO INGURUMEN
PROIEKTU ONENAREN SARIKETA**

SARIKETAREN OINARRIAK

Goieki, Goierriko garapen agentziak Enpresa Ekimen Berrien XII. Sariketaren barne “Enpresan Burututako Ingurumen Proiektu Onenaren Sariketa” sustatzen du.

Goieki, eskualdeko 18 udalekin batera (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberri, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain) Tokiko Agenda 21a gauzatzen hari da, iraunkortasuna bere hiru irizpideetan (soziala, ekonomikoa eta ingurumena) garatuz.

Iraunkortasun gaietan eta gure eskualdean industriak duen garrantzia ikusirik, eskualde mailan udala-enpresa ekintza plana garatu zen, industri sektorea iraunkortasun prozesuetan sartzeko. Udala-enpresa ekintza plan onen barnean aurrera eramandako ekintzen artean, ingurugiro zerbitzu bat martxan jarri izana dago, enpresek ingurumen arloetan dituzten galderei erantzuteko dagoelarik.

Abagune berri honetan Udalen, Sasieta Mankomunitatea, Sprilur-Goierri Beheko Industrialdea, IHOBEn eta eskualdeko enpresa talde baten laguntzarekin sariketa berriz ere martxan jartzen dugu. Sariketa honen helburu nagusia enpresa txiki eta ertainek (ETE) ingurumenaren babeserako aurrera eramaten dituzten ekintzak saritzea eta sustatzea da.

I- HELBURUAK

- ✓ ETE-ei ingurumenaren gaineko eraginak gutxitzeko helburuarekin egiten dituzten inbertsioak egiteko diru laguntza bat ematea.
- ✓ Ingurumen arloan aurrera pausoak ematen dituzten enpresak aintzat hartu.
- ✓ Industri jarduerak sortu dezaketen ingurumenaren gaineko eraginak gutxitu.
- ✓ Enpresak garapen iraunkorraren alde motibatu.
- ✓ Enpresek ingurumenaren babes haundiago bat lortzeko gauzatzen dituzten ekintzak ezagutzera eman.

II- NORI ZUZENDUA

Laguntzaren onuradunak Goierrin kokaturiko E.T.E-ak izan daitezke, aurkeztutako proiektua eskualdean bertan burutu behar delarik.

Aurkezten diren proiektuak 2008an burutuak edo 2009an burutuko direnak izan beharra daukate.

Gutxieneko oinarriak:

Aktibitate lizentzia inbertsioa gauzatu den tokian edukitzea edo lizentzia ateratzeko aurkeztu behar den proiektua udaletxean aurkeztuta edukitzea.

Enpresa, ekoizten dituen hondakinen arabera, hondakin arriskutsuen ekoizle/ekoizle txikien erregistroan eta/edo hondakin inerteen erregistroan izena emana edukitzea, eta hondakinak kudeatzaile onartu baten bitartez kudeatzea.

III- SARIA

Diru-laguntza ez da diruz lagundu daitekeen kostuaren %75 baino handiagoa izango, ezta ere 6.000€ baino gehiago proiektuko.

Diru-laguntzaz kanpo geratuko diren gastuak BEZ-a eta ingurumena babestearekin erlazionaturik ez dauden beste edozein gastuak izango dira.

Diru laguntza inbertsioa egin eta martxan jartzen denean emango da eta aktibitate lizentzia tramitatzen hari den kasuetan, lizentzia lortzen denean emango da.

IV- BALDINTZA OROKORRAK

Laguntza enpresei ingurumen arloan egin ditzaketen inbertsioak egiten laguntzeko zuzendurik dago, ekintza hauen bitartez ingurumenarekiko babesa haundituz eta legediak gaur egun ezartzen dituen arauak gainditzeko.

Laguntzak jaso ditzaketen ekintzak, ondorengoak izan daitezke:

Ondorengo helburua dituzten inbertsioak:

- Atmosferako isuriak gutxitzeko.
- Zarata emisioak.
- Hondakinen gutxiagotzea, birziklapena edo berrerabilpena lortzeko.
- Ur kontsumoak edo isuriak gutxitzeko.
- eta abar.

Ingurumen alorreko aholkularitza zerbitzuak, beti ere hauen ondorioz sortutako ekintzak martxan jartzen badira eta ingurumena babesteko hobekuntzak badakartzate.

Ingurumenaren babes handiagoa lortzeko martxan jartzen diren beste ekintzak.

V- AGIRIAK ETA BESTELAKOAK

Aurkeztu beharreko agiriak ondorengoak dira:

- ♣ Eskabidea
- ♣ I Eranskina
- ♣ Proiektuaren Memoria (Gehienez 10 orrialde).
 - Enpresaren jardueraren deskribapen bat.
 - *Proiektuaren eta ingurumenean lortzen diren hobekuntzen deskribapena, hasierako eta bukaerako egoeren azalpena eginez. (Aparatu batean eginiko inbertsioa izan ezker, ekipamenduaren eta funtzioen deskribapena).*
 - *Lanerako plangintza, faseak eta abar.*
 - *Inbertsioaren datu ekonomikoen azalpena.*
 - *Eginiko inbertsioen fakturak edo egingo den inbertsioen aurrekontuak.*

Bestalde, zure iritziz sariketa onetarako garrantzitsua izan daitekeen beste edozein agiri aurkeztu daiteke: argazkiak eta abar.

Eskabideak ondorengo tokian aurkeztu behar dira:

GOIEKI,

Maiutz industri poligonoa , 18 pabilioia,

Ordizia

edo ondorengo helbide elektronikora bidaliz iazurmendi.goieki@goierri.org

Informazio gehiago: 943.16.00.40 telefonoan eta;



www.goierri.org

iazurmendi.goieki@goierri.org

VI- LANA AURKEZTEKO EPEA

Agiri guztiak aurkezteko epea **2009ko otsailaren 27 an** bukatuko da.

VII- EBALUAZIOARAKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuen ebaluazioa Udaletxe, Sasieta Mankomunitatea, Sprilur-Goierri Beheko Industrialdea, Ihobe, eskualdeko zenbait enpresen eta Goiekiko ordezkariak osturiko lan-talde batek egingo du.

Diru-laguntzak emateko orduan jarduerak ingurumenean duen eragina eta inbertsioak ekarriko dituen onurak aztertuko dira.

**ENPRESAN BURUTUTAKO INGURUMEN PROIEKTU
ONENAREN SARIKETA**

ESKABIDEA

Proiektuaren izena:

Sozietatearen izena:	
IFK:	EJSN nagusia:
Jarduera:	
Hekbidea:	Herria:
2008ko langile kopurua:	
Harremanetarako pertsona:	
Telefonoa:	Helbide elektronikoa:
Enpresak inbertsioa gauzatu duen tokian aktibitate lizentzia dauka:	
<p>Bai (data: ____ / ____ / ____)</p> <p>Tramitatzen hari da (Proiektua udaletxean aurkeztu zeneko data ____ / ____ / ____).</p> <p>Irekitze lizentzia dauka (data: ____ / ____ / ____)</p>	
Enpresa Eusko Jaurlaritzaren ondorengo erregistroan izena emana dauka:	
<p>Hondakin arriskutsuen ekoizle txikia bezala (< 10Tm/urteko). Inskripzio zenbakia: ____</p> <p>Hondakin arriskutsuen ekoizle bezala (> 10Tm/urteko). Inskripzio zenbakia: ____</p> <p>Hondakin inerteen ekoizle bezala.</p> <p>Tramitatzen (Eskaera aurkeztu zeneko data ____ / ____ / ____ eta ekoizle mota: ____).</p> <p>Enpresak ez du horrelako hondakinik sortzen.</p>	

Oharrak:

I ERANSKINA
PROIEKTU HONETARAKO ESKATU DIREN EDO BESTE ERAKUNDE PUBLIKO
BATZUK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAREN AITORPENA

Erakundea:.....
IFK:.....
Ordezkarria:.....
NAN

Aitorpena:

➤ *Ez da eskatu/jaso inolako dirulaguntzarik “Enpresan burututako ingurumen proiektu onenaren sariketa”-ra aurkezten denproiektua burutzeko.*

Eta hala jasota gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan, adierazpen hau izenpetzen dut

.....n, 200_ko..... aren.....an
Ordezkarriaren sinadura:

➤ *Ondorengo dirulaguntza eskatu/jaso da “Enpresan burututako ingurumen proiektu onenaren sariketa”-ra aurkezten den.....proiektua burutzeko.*

<i>Erakunde publikoa</i>	<i>Dirulaguntzaren urtea</i>	<i>Eskatutako diru-kopurua</i>	<i>Jasotako diru-kopurua</i>

Eta hala jasota gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan, adierazpen hau izenpetzen dut

.....n, 200_ko..... aren.....an
Ordezkarriaren sinadura: